

In memoriam: Juan Garmendia Larrañaga

(Tolosa, 1926-2015)



Juan Garmendia Larrañagari (1926-2015) behin betiko agurra esanda, euskal kulturak etnografiaren alorreko funtsezko figura bat eta Jose Migel Barandiaranen eta Julio Caro Barojaren dizipulurik emankorrena galdu du. Bietako lehena-ekin hasi zen ikerkuntzan, 1953an, Barandiaran erbestetik itzuli eta Aranzadi Zientzia Elkartearen babespean *Eusko Folklorearen Urtekaria* berreskuratzeko asmoa agertu zuenean. Argitalpen horren orrialdeetan argitaratu ziren Garmendia Larrañagaren aurreneko lanak, Tolosaldeko artisau-eburuzkoak.

Caro Barojari dagokionez, “maisurik eta adiskidetzat” izan zuen Garmendiak. Unibertsitateko aholkulari ere izan zuen doktoregoa lortu zuenean, aski berandu lortu ere (57 urte zituela). Elkarrekin gidatu zuten *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, 1983tik 1995era. Oso esanguratsua da Jose Migel Barandiaran *Juani-toren* bitartez (lagunek hala deitzen zioten) sartu izana lehen aldiz Barojatarren baserrian, Berako Itzean, 1975ean.

Juan Garmendia Larrañagak azpimarratu ohi zuenez, bera baino zaharragoak ziren pertsonekin harremanak izatea erabakigarria izan zen bere prestakuntzarako, horiengan intelektualki garatu eta aurreratzeko pizgarria aurkitu baitzuen. Hala, gazte-gaztetatik lagun esanguratsuak izan zituen Tolosako, bere jaioterriko, kultura-zirkuluetan, hala nola Eduardo Moco-roa organo-jotzailea (1867-1959), Emeterio Arrese poeta (1869-1954), Carlos Landi Sorondo pintorea (1896-1974), Antonio Labayen idazle, dramagile eta akademikoa (1898-1994), Justo Moco-roa eskolapio, idazle eta hizkuntzalari (1901-1990) edo Federico de Zavala historialari eta legelaria (1916-1993). Azken horrek animaturik, lehen liburua argitaratu zuen egilekidetzan: bere herriaren iraganari buruzko monografia.

Urteak igaro ahala, euskal kulturako figura gailenetako askoren laguna izan zen, baita bere obra batzuk ilustratuz lagundu zioten artistena ere (Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza, Agustin Ibarrola, Miguel Angel Alvarez...). Baina atsegin zuen, era berean, askotariko erremuetako pertsonekin eta bestelako interesak zituztenekin harremanetan egotea, baita joera erudituekin batera zerikusirik ez zutenekin ere. Bazekien jakintza ez dagoela liburu edo katedretan soilik, baizik eta, batzuetan, gutxien espero dugunean eta dugunekin ere aberastu gaitzkeela. Giza harremanetarako oso sentsibilitate fina zuen, baita bere solaskideak ulertzeko ezohiko zorrotzasun psikologikoa ere.

Garmendia Larrañagari etxeko ingurunean ernatu zitzaion etnografiarekiko bo-
kazioa, bere aitaldeko familiaren bizimodua eta lanbidea –kandelagileak izan ziren
belaunaldiz belaunaldi– desagertzeko zorian zegoela ikusi zuenean. Testuinguru har-
tan egin zituen herri-artistazari buruzko lehen ikerketak. Gai horretara itzuliko zen
urte batzuk geroago; horrela, dokumentu multzo zabal eta joria osatu ahal izan zuen.
Haren interesa ez zen lanbideen alderdi tekniko edo funtzioaletara mugatzen; ai-
tztitik, gizabanakoari eta gizartean duen lekuari ere begiratzen zion. Horrelaxe hur-
bildu zen Caro Barojak “pentsaera apalak” deitu zuen hura ulertzera.

Izan ere, Garmendia Larrañagaren saiakerek agerian jartzen dute berak giza
izaerarekiko zuen etengabeko interesa, hari zentzu zabalenean erreparatzen bai-
tzion zorrotasun deskriptiboz, baina baita samurtasunez ere. Arrazoiaren eta biho-
tzaren arteko tentsio horren adierazgarri ezin hobea dira berak idatzitako obrak, hala
nola *Euskal pentsamendu majikoa / Pensamiento mágico vasco* (1989); *El criado
o morroi: visión etno-histórica* (2002); *De la lana a la marraga. Recuerdo a los ma-
rragueros guipuzcoanos* (2004); *El mendigo: estudio histórico-etnológico* (2007);
edo *Verdugo* (2008), batzuk aipatzearren.

Berak sortutako obraren barruan, historiako edo herriko pertsonaien bio-
grafiek, deskribapenek eta oroitzapenek *sui generis* multzoa osatzen dute. Horien
artean berdin aurki daitezke abarketari apala eta landa-nobleziako ordezkariak, al-
projak eta langileak, galdaragileak eta eskribauak (aipamen berezia merezi dute
1996 eta 2012 bitartean biografia bana eskaini zien sei tolosarrek; bilduma au-
toeditatu batean jasota daude bibliografiak).

Historian isla izan ez duten pertsonaia, usadio eta jardueraz josita dago Gar-
mendia Larrañagaren obra. Izan ere, bere ikerketen gaiak aukeratzen zituenean
“abelbidetik irten” nahi izaten zuen, berak zioen bezala. Gaiak aukeratzeko estilo
berezia eta horiei heltzeko modu pertsonala zuen, baita idazkera beroa ere plaza-
ratzeko orduan, hitz zehatzak, deskribapen egokiak eta estilo dotore eta koloretsua
erabiliz.

Juan Garmendia Larrañagak, funtsean, euskal geografia osoan egindako
landa-lan luze eta nekazina izan ohi zuen abiapuntu bere ikerketa guztiak lantzeko;
ondoren, irakurketa luzeen bitartez eta artxiboetan arakatuz eskuratutako errefe-
rentzia historikoekin osatzen zuen lana. Hala sortu ziren milaka eta milaka orri.
Gehienak gaztelaniaz idatzi zituen, baina euskaraz ere asko (euskal emari lexiko-
grafikoari egindako ekarpena ezaguna eta aitortua da, eta liburu honetan jasota
dago: *Juan Garmendia Larrañagaren hiztegi etnografikoa*, 2003). Orrialdeok as-
kotariko gaiez osaturiko katalogo ezin aberatsagoa erakusten digute: industria au-
rreko antzinako lanbideetatik mitologiara, jai-zikloetatik haur-jolasetara, heriotza-
errituak, herri-medikuntza, artisautza eta irauin duten industria aurreko beste lan
batzuk. Idatzitako produkzio horrek luzapena izan zuen irakaskuntzan eta dibulga-
zio-lanetan, ikastaro, hitzaldi eta aurkezpenen bidez.

Lan horietatik aipatu beharrekoa da hau: *Iñauteria. El carnaval vasco*
(1973). Bertan, penintsulako euskal herri eta eskualdeetako inauterien ospakizu-
nari buruzko testigantzak bildu zituen, hain zuzen ere inauteriak debekatu aurre-
koak. Informazio hori ezin baliotsuagoa izan zen geroago, diktadura bukatu eta gero,

jai hori birpizteko. Horrez gain, neguko eta udako jai-egutegiaren interpretazio-analisisa egin zuen; ildo horretan, jaiak denboran zehar komunitatearen ispilu izan dira erakutsi zuen, horien esanahiak eta sinboloak, erritu eta mozorro komiko nahiz tragikoak ikertuz.

Hasieran aurreratu dugunez, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria, RIEV*, berriro bultzatzeko zereginetan parte hartu zuen, Julio Caro Barojarekin batera. Aldizkariaren koordinatzailea zenez, gestioaren ardurua nagusia hartu zuen bere gain; Caro Baroja 1995ean hil ondoren, berriz, bi urtez zuzendu zuen aldizkaria, eta Erredakzio Kontseiluko kide izan da oraintsu arte.

Oso jarduera nabarmena bete zuen Eusko Ikaskuntzan. Beste ardurua batzuen artean, idazkari gestorea izan zen 1981 eta 1993 bitartean, eta Eusko Ikaskuntzen IX., X. eta XI. Kongresuak antolatzeko batzordekide izan zen (1983-1991). 1996an, erakundeak ohorezko bazkide izendatu zuen. Euskaltzaindiak ere gauza bera egin zuen 2002an. Bere ibilbide osoagatik, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Saria irabazi zuen 2001ean. Urte berean Manuel de Lekuona Sarirako proposatua izan zen, baina ez zuen sariak metatzerik nahi eta uko egin zion.

Agian emozio handiena eragin zion tituluetakoa bat Tolosako Seme Kuttuna izan zen, 1998an. Izan ere, Juan Garmendia Larrañagaren izena Tolosari lotuta geratuko da, eta ez bakarrik arrazoi biografikoengatik, baita azken mendean Gipuzkoako herri horretan ikertu eta jardun duten egilerik emankorrena izan delako ere.

Haren idatzizko produkzio guztia Eusko Ikaskuntzak kudeatzen du eta honako webgune honetan dago: www.eusko-ikaskuntza.org/es/juangarmendialarranaga (beste webgune honetatik ere eskura daiteke: www.europeana.org). Bertan jasota dago, era berean, obra guztien katalogoa, Jose Angel Ormazabalek eta Eva Nietok 2008an egina.

Juan Garmendia Larrañaga Bilduman murgiltzen denak legatu antropologiko eta historiko zabal eta sakona aurkituko du, XX. mendearen bigarren erdialdeko euskal pentsaera tradizionala ulertzeko funtsezkoa den ikertzaile horrek utzitakoa. Obra horren irakurketak aurrerantzean ere gure herrialde txikia, bere jendea eta bere gauzak maitatzen irakatsiko digu, berak pertsonalki irakatsi zigun bezala. Haren lagunak izateko pribilejioa izan genuenok badakigu hurrenkera sentimental hori herentziarik preziatuena zela berarentzat.

In memoriam: Juan Garmendia Larrañaga

(Tolosa, 1926-2015)



En el adiós definitivo a Juan Garmendia Larrañaga (1926-2015) la cultura vasca se despidió de una figura fundamental en el campo de la etnografía y del discípulo más prolífico de José Miguel de Barandiaran y de Julio Caro Baroja. Junto al primero se inició en la investigación cuando, de regreso del exilio en 1953, Barandiaran se propuso recuperar el *Anuario de Eusko-Folklore* al amparo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. En las páginas de esta publicación vieron la luz los trabajos primiciales de Garmendia Larrañaga que versaron sobre artesanos de la comarca tolosana.

En cuanto a Caro Baroja, a quien él calificaba de “maestro y amigo”, lo tuvo como mentor universitario en el doctorado tardíamente obtenido (a la edad de 57 años), y juntos llevaron las riendas de la *Revista Internacional de los Estudios Vascos* desde 1983 hasta 1995. Significativamente, fue por mediación de *Juanito*, como sus allegados le conocían, que José Miguel de Barandiaran cruzó por primera vez el umbral del caserío Itzea de Bera, residencia de los Baroja, el año 1975.

Juan Garmendia Larrañaga subrayaba que el trato desde muy joven con personas mayores que él, en quienes encontró estímulo para madurar y progresar intelectualmente, tuvo un valor determinante en su formación. Así fue como, desde temprana edad, en los círculos culturales de su Tolosa natal cultivó amistad con figuras como el organista Eduardo Moco-roa (1867-1959), el poeta Emeterio Arrese (1869-1954), el pintor Carlos Landi Sorondo (1896-1974), Antonio Labayen (1898-1994), escritor, dramaturgo y académico, Justo Moco-roa (1901-1990), escolapio, escritor y lingüista o Federico de Zavala (1916-1993), historiador y jurista que le animó a publicar en coautoría su primer libro, una monografía sobre el pasado de su villa.

Al discurrir de los años forjó amistad con no pocas de las principales figuras de la cultura vasca, así como con artistas que colaboraron ilustrando algunas de sus obras (Néstor Basterretxea, Jorge Oteiza, Agustín Ibarrola, Miguel Ángel Álvarez...). Pero también apreciaba el contacto con personas de ámbitos e intereses diversos y hasta ajenos a toda inclinación erudita. Asumía que el saber no reside únicamente en los libros y en las cátedras sino que, a veces, podemos enriquecernos donde y con quien menos cabría esperarlo. Poseía una exquisita sensibilidad para las relaciones humanas y una perspicacia poco común para la comprensión psicológica de sus interlocutores.

La vocación de Garmendia Larrañaga por la etnografía germinó en su medio doméstico, en la observación de que los modos de trabajo y de vida de su familia paterna, ligada por generaciones al oficio de cereros, se hallaban en vías de extinción. En ese contexto inició sus primeras investigaciones sobre la artesanía popular, tema al que volvería a lo largo de los años hasta completar un extenso y riquísimo cuerpo documental. Su interés no se limitaba a los aspectos meramente técnicos y funcionales de los oficios sino a cuanto afectara a la existencia del individuo y a su lugar en la sociedad, acercándose así a la comprensión de aquello que Caro Baroja denominó “formas humildes de pensamiento”.

En efecto, los ensayos de Garmendia Larrañaga revelan un permanente interés por la condición humana en su más amplio espectro, a la que se asomaba con rigor descriptivo no exento de ternura. Obras como *Euskal pentsamendu majikoa / Pensamiento mágico vasco* (1989), *El criado o morroi: visión etno-histórica* (2002), *De la lana a la marra. Recuerdo a los marraqueros guipuzcoanos* (2004), *El mendigo: estudio histórico-etnológico* (2007) o *Verdugo* (2008), por citar solo algunos, resumen perfectamente esta tensión entre razón y corazón.

En el conjunto de su producción, las biografías, las semblanzas y las evocaciones de figuras históricas o populares conforman una galería *sui generis* que abarca desde un humilde alpargatero hasta figuras de la nobleza rural, desde atorrantes hasta laboriosos, de caldereros a escribanos (con mención particular a los seis tolosarras a los que dedicó otras tantas biografías entre 1996 y 2012 recogidas en una colección autoeditada).

Su obra está poblada por personajes, costumbres y desempeños alejados de los focos de la Historia. Porque al elegir los temas de sus investigaciones siempre procuró “salir de la cañada”, según su propia expresión. En esa elección cimentaba un estilo propio que se desplegaba en su personal forma de abordar los asuntos y remataba en una escritura cálida, de palpable gusto por la palabra precisa, la descripción ceñida y el estilo elegante y colorido.

Juan Garmendia Larrañaga elaboraba sus estudios fundamentalmente a partir de un extenso e infatigable trabajo de campo por toda la geografía vasca, y lo esmaltaba con amplias lecturas y referencias históricas obtenidas en la indagación archivística. Así surgen las miles de páginas escritas principalmente en lengua castellana, aunque también en euskera (conocida y reconocida es su aportación al caudal lexicográfico euskaldun, recogido principalmente en *Juan Garmendia Larrañagaren hiztegi etnografikoa*, de 2003), que nos abren a un riquísimo catálogo de temas que van desde el quehacer de los antiguos oficios preindustriales a la mitología, de los ciclos festivos a los juegos infantiles, los ritos de la muerte, la medicina popular, la artesanía y otras pervivencias del trabajo preindustrial; producción escrita que prolongó en su labor docente y de divulgación a través de cursos, conferencias y presentaciones.

En particular debe mencionarse el libro *Iñauteria. El carnaval vasco* (1973), donde reunió testimonios sobre la celebración del Carnaval en pueblos y comarcas vasco-peninsulares antes de su prohibición, salvando así una información que resultó valiosísima para la revitalización de la fiesta al término de la dictadura. Aco-

metió además el análisis interpretativo del calendario festivo tanto de invierno como de verano desvelando lo que tiene la fiesta de espejo de la comunidad en el tiempo, con sus significados y símbolos, ritos y máscaras tanto cómica como trágica.

Según se ha anticipado al comienzo, participó en el relanzamiento de la *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEV*, al lado de Julio Caro Baroja. Como coordinador llevó el peso principal de su gestión y la dirigió durante dos años tras el fallecimiento de aquel en 1995, permaneciendo en su Consejo de Redacción hasta el presente.

Muy relevante fue su actividad en Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos donde, entre otros muchos desempeños, ocupó el cargo de Secretario Gestor entre 1981 y 1993, y formó parte de los comités organizadores de los Congresos IX, X y XI de Estudios Vascos (1983-1991). En 1996 se le reconoció como Socio de Honor de la entidad; Euskaltzaindia haría lo propio en 2002. Por toda su trayectoria, en 2001 recibió el Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Arte y Ciencias Sociales. Propuesto ese mismo año para el Premio Manuel de Lekuona, tuvo a bien renunciar a dicho galardón por evitar el acopio.

Quizá uno de los títulos que mayor emoción le produjo fue el de Tolosako Seme Kuttuna-Hijo Predilecto de la Villa de Tolosa en 1998. No en vano el nombre de Juan Garmendia Larrañaga quedará para siempre unido a ella no sólo por razones biográficas sino por tratarse del autor más prolífico de cuantos han investigado y disertado sobre la villa guipuzcoana durante el último siglo.

La totalidad de su producción escrita está gestionada por Eusko Ikaskuntza y contenida en la página web www.eusko-ikaskuntza.org/es/juangarmendialarrañaga (accesible también desde www.europeana.org). Allí se encuentra asimismo el catálogo de la obra completa realizado por José Ángel Ormazabal y Eva Nieto en 2008.

Quien se adentre en la *Colección Juan Garmendia Larrañaga Bilduma* descubrirá el vasto y profundo legado antropológico e histórico de un investigador clave para entender la mentalidad tradicional vasca en la segunda mitad del siglo XX. Su lectura nos seguirá enseñando –como el trato personal con él nos enseñó– a amar a nuestro pequeño país, su gente y sus cosas. Quienes tuvimos el privilegio de su amistad sabemos que esta sucesión de orden sentimental él la consideraba como su más preciada herencia.